



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2022ko uztailaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, uztailaren bostean, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularatasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatua zena** : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2022ko uztailaren 1a

Afitxatze eguna : 2022ko uztailaren 1a

### 1. ERABAKIA: KUDEAKETA ZENTROKO AURRETIKO BITARTEKARITZA ZERBITZUAN IZENA EMATEA

*(4.1 nomenklatura – Lurralde Funtzio Publikoko langile titular eta ikastunak)*

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio, esperimentazioaldi baten ondotik Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoko Kudeaketa Zentroak, Frantziako 2021eko abenduaren 22ko 2021-1729 “lege-erakundearen konfiantzaren aldeko legeak” baimendurik, aurretiko bitartekaritza misio nahitaezkoa proposatzen duela.

Kudeaketa zentroek misio hori derrigorrez proposatu behar dute, baina lurralde erakundeek horretan bazkide izatea ala ez hauta dezakete.

Misio horrekin, PAUeko Administrazio Auzitegira jo aitzin, auzibide guztientzat nahitaezko bitartekaritza fase bat eskaintzen du, norbanakoen administrazio erabaki hauentzat:

- Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 712-1 artikuluan biltzen diren administrazioak norbanakoen lansariei buruz hartu erabaki ezkorrak;
- 1988ko otsailaren 25eko frantses dekretuko 15, 17, 18 eta 35-2 artikuluetan biltzen diren, kanpo zerbitzaldi eta lan-utzialdien errefusatzea, eta kontratupekoen oporrak ez onartzea;
- Kanpo zerbitzaldi, lan-utzialdi edo gurasotasun-oporraldi, nola aitzinekoan aipatzen den kontratupekoen oporraldi baten ondotik lan-postuan berriz hartzeko administrazioak norbanakoei eman erabaki ezkorrak;
- Barne promozio baten bidez klasez, graduz eta postuz igo den langileei administrazioak hartu norbanako erabaki ezkorrak;
- Bizi osoko lanbide-formakuntzari buruz administrazioak hartu

- norbanako erabaki ezkorrak;
- Funtzio publikoaren Frantziako kode orokorreko L. 131-8 eta L. 131-10 artikuluetan biltzen diren, administrazio-enplegatzaile publikoek langile elbarrituen kaltetan hartu erabaki ezkorrak;
- 1985eko irailaren 30eko frantses dekretuak biltzen dituen baldintzen arabera, beren funtzioak betetzeko ezintasunean diren funtzionarioen lan baldintzen kaltetan administrazioak hartu norbanako erabaki ezkorrak.

Gatazken konpontzeko manera alternatibo honi esker, legezkotasun eta administrazio zuzen baten printzipioak urratu gabe, ezadostasunak malgutasunez, fiteago eta gastu guttiagorekin konpondu daitezke.

Bitartekaritza, Kudeaketa Zentroko langile bereziki formatu eta ahaldunek burutuko dute, bitartekaritzaren printzipio nagusiak bermatuz: independentzia, neutraltasuna, inpartzialtasuna eta konfidentzialtasuna.

Zerbitzu berri hori baliatu ahal izateko, zeina bitartekaritza bakoitzeko 600€ kostatzen den, lurralde erakundeek deliberatu behar dute.

Honako erabakiak ez du deusetara behartzen, baina sekula gatazka bat izango balitz, auzitegira jo aitzin, elkarrizketa fase honek elkar ulertzea bidera dezake, zaluago, merkeago eta gainera gatazkaren konponbide iraunkorrago batekin.

Zerbitzu horretan izena emateak duen interesaz jabeturik,

Organo erabakitzaileak,

**- ERABAKI DU**, Frantziako 2021eko abenduaren 22ko 2021-1729 “lege-erakundeen konfiantzaren aldeko legeak” biltzen duen aurretiko bitartekaritza misio nahitaezkoaren kide izatea.

**- BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari, erantsia den bazkidetza hitzarmenaren izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko uztailaren 5ean  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2022/07/08an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/07/08an.